

## Bidebieta

# Parkeko obrak hasi dira

Eliza ondoko parkea zaharbertzeko lanak hastear dira. Konponketak, parke zaharrean ez ezik, eliza atzealdeko lurzoruan ere egingo dira. Aurreikusita-koaren arabera, lanak datorren urtearen hasieran bukatuko dira.

**P**arkea berritzeko proiektua 1998an egin zen. Egitasmo hura, ordea, ez zen aurrera atera. Izan ere, parke azpian egitekoa zen aparkalekua ez zen gauzatu eta aurreikusitako lanak bertan behera geratu ziren. Horren ondorioz, proiektua berridatzi zuten. Duela hilabete eta erdi inguru, hondeamakinak parke zaharrean sartu ziren eta lanak dagoeneko hasi dira. Javier Solano arkitektoa da proiektuaren zuzendaria, eta Obenasa enpresa nafarrak egingo ditu lanak. Zaharbertituko den lurzorua 7.200 metro karratukoa da, eta le-

**2003 urte hasieran amaituko dira lanak**

hengo parkeaz gain eliza atzealdeko berdegunea berrituko da.

### Ikuspegi zabala

Parke berriak goialdea eta behealdea lotuko dituen bi pasabide izango ditu. Pasabide horiek parkean zehar ibiltzeko, eta batez ere, auzoko zonalde horren goialdea eta behealdea zeharkatzeko erabil-



Eliza atzealdeko lurzorua ere berrituko da.


daitezela nahi dute egileek. Pasabide horien erabilpena bultzatzeko, eta bide batez, parkea ahalik eta zabalten izan dadin, inguruko espaloien eta parkearen artean ez da inolako harresirik ezarriko. Bestalde, inguruetatik parke osoa ikusi ahal izatea da Solano arkitektoaren helburuetako bat. Hala, argiztapenari dagokionez, ikuspegi zabala oztopa zezakeen ohiko farola bertikalik ez du izango parke berriak. Horien ordez, proiektoreak jarriko dira. Haurrek ere izango dute non jolastu. Besteak beste, txirristak, kulunkak eta 132 metro karratuko gune estalia jarriko dira.

Proiektuan taberna baten-tzako lekua eta festetan egin ohi diren kontzertuak parke berrian egiteko aukera ere au-

reikusten dira. Hala eta guztiz ere, erabilpen hauék lanak bukatu arte ez dira erabat zehaztuko.

### San Juan sua lekuri gabe

Orain arte San Juan sua elizaren atzealdeko lurzoruan egin da. Lanak amaitu ostean, berriz, lurzoru hori parke berriaren baitan egongo da. Hor-taz, auzotarrek San Juan gaur ospatzeko beste leku bat bilatu beharko dute. Solano arkitektoaren proiektuak ez du lekuri zehazten sua egin ahal izateko, baina parkean bertan horrelako erabilera izan dezakeen gune bat baino gehiago aipatzen da. Ondo bidean aisialdirako gune hau datorren urtearen hasieran zabalduko da.



### Irailen kiroldegia itxita

Irailaren 8tik 16ra bitartean, auzoko kiroldegia itxita egongo da. Egun horietan, besteak beste, ur beroaren biltegien al-daketa egingo da.

